



**Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena. Horren bidez, dei egiten zaie Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei parte har dezaten unibertsitatez kanpoko euskal hezkuntza-sistemaren mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan programan.**

Irakasleen gaitasun digitalerako esparru europarrak (DigCompEdu, 2012) eta irakaskuntzako gaitasun digitalaren erreferentziarako esparruak (2022), Hezkuntzako Mahai Sektorialean adostuak, irakaskuntzako gaitasun digital espezifikoak bildu eta deskribatzen ditu, eta irakasleen gaitasun digitala ebaluatzen eta garatzen laguntzen duen progresio-eredu bat proposatzen du. Halaber, arlo digitalean gai diren erakundeen esparru europarra (DigCompOrg, 2015) eta Heldutasun Teknologikoaren Eredua (2017), Hezkuntza Sailarena, erreferentziarako dokumentuak dira hezkuntza-erakundeetan gaitasun digitala hobetzeko, eta helburu dute ikastetxeei eraldaketa digital koherente eta sistematikoa egiten laguntzea, ikuspegi sistematiko batean oinarrituta.

Hezkuntza Sailak Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Plana egin du, eraldaketa digitalerako ekintzak sustatzeko eta ikastetxeen artean lankidetzaz-esparruak sortzeko 2022-2024 aldian, XII. Legealdiaren esparruan. Digitalizazio Planaren helburu nagusia da herritarren gaitasun digitala garatzen laguntzea, teknologiek bere eragindako eraldaketa eta aldaketa azkarrak ezaugarri dituen gizarte batean bizitzeko eta lan egiteko, eta, zehatzago, ikasleen, irakasleen eta ikastetxeen gaitasun digitala hobetzea, hezkuntza-eraldaketaren alde eginez.

Teknologia digitalek hezkuntzaren arlo guztietan dute eragina eta beharizan eta aukera berriak sortzen dituzte. Alabaina, teknologia digitalok integratzeak hainbat erronka planteatzen ditu, eta erantzuna behar dute. Hori horrela, hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, esku hartzeko arlo nagusiak ezarri dira, Euskal Hezkuntza Sistema modernizatzen eta egokitzen laguntzeko eraldaketa digitalaren erronken aurrean.

Haur Hezkuntzaren, Lehen Hezkuntzaren, Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren testuinguruan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala txertatzen aurrera egin nahi da. Material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera bideratutako hainbat ekintza bultzatuko dira. Gainera, DigCompEdu Gelan izeneko ikastetxe eta mentoreen sare bat sortzea sustatuko da, eta horiek erreferentzia izango dira hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako.

Sare hori hainbat ikastetxek eta irakasleek osatuko dute. Ikastetxe eta irakasle horiek beren antolakuntza- eta hezkuntza-jardunaren eraldaketa digitala ezartzeko duten ezagutza eta esperientzia partekatuko dute, eta hezitzaileen mentoretza- eta prestakuntza-ekintzak bultzatuko dituzte. Aurreikusitako ekintzen artean proposatzen dira beren antolakuntza- eta hezkuntza-jardunaren eraldaketa digitala ezartzeko duten ezagutza eta esperientzia partekatzen duten ikastetxe eta irakasleak sustatzea, berdinen arteko tutoretza- eta mentoretza-ekintzak bultzatuz.

Deialdiak, hain zuzen ere, goi-mailako prestakuntza duten ikastetxeen eta irakasleen sarea osatzeari erantzuten dio (DigCompEdu Gelan). Ikastetxe eta irakasle horiek osatuko dituzte eraldaketa digitalerako



estrategia arrakastatsuen transferentziaren eta irakasleen prestakuntzaren buru izango diren nodoak, azken irakasleon gaitasun digitala eta irakaskuntzan duten aplikazioa hobetzeko.

Euskal Hezkuntza Sistemaren Digitalizazio Aurreratuaren Planean jasotzen den moduan, hirugarren erronkan proposatzen da ikastetxe bakoitzaren gobernantza eta autonomia kontuan hartuko duen lidergo bat bultzatu beharko dela, ikastetxe bakoitza digitalki gaitua izan dadin. Eraldaketa digitalaren estrategia aurreratu garatzeko ikastetxearen kultura-erlaketak berarekin dakar zuzendaritzak lider-lana egin behar izatea, eta jendeari laguntzea ikastetxeko praktika pedagogikoan parte hartzeko, gaikuntza emateko, elkarrekin jarduteko eta gogoeta kolektiboa bultzatzeko. Eraldaketa hori gauzatzeko, estrategia argia erabili behar da, langileak eta espazioak planifikatzeko, ikastetxeko proiektu digitalaren garapena eta ezarpena ziurtatzeko moduan.

Mentoretzaren bitartez ikastetxeei aholkularitza emateko lana funtsezkoa da hezkuntza eraldatzeko, eta, horretarako, DigCompEdu Gelan sareak ikastetxeek diseinatuko dituzten proiektu digitalak ezartzen lagunduko du eta sareko trukea sustatuko du, hezkuntza-sistema osoaren etengabeko hobekuntza integrala mamitze aldera. Sare horrek sistema osorako ezagutza-nodoak bultzatuko ditu. Sistemako ikasle guzti-guztiak arrakasta izango badute, ezinbestekoa izango da jardunbide egokiak trukatzeko parte hartzea dakarren ikaskuntzako lankidetzaren ingurune egokia sortzea.

Deialdi horren bitartez, Ikastetxeen eta Mentoreen Sarea (DigCompEdu Gelan) sortuko da, eta EAEko lurralde osoan hedatuko da. Sareak gainerako ikastetxeei lagunduko die ikastetxeko proiektu digitala egiten eta ezartzen eta irakasleen gaitasun digitalerako prestakuntza ematen.

Mentore digitalen aldi baterako programa hori Euskal Hezkuntza Sistemaren hezkuntza digitalaren planaren esparruan proposatzen da, eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak eta Europar Batasunak finantzatzen dute, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan.

Hori horrela izanik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

### **1. artikulua.- Deialdiaren helburua eta aurrekontu-zuzkidura.**

1.- Deialdi honen xedea da ikastetxeak eta irakasle mentoreak hautatzeko prozedura ezartzea (horiek proposatzen dituztenak), mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan sarea eratzeko, euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoen digitalizazioa eta irakasleen gaitasun digitala sustatzeko helburuarekin.

2.- Aldi baterako programa hau finantzatzeko gastua konferentzia sektorialaren 2021eko uztailaren 21eko Akordioko baliabide ekonomikoen kargura egingo da; hortaz, lurralde-banaketaren proposamena eta autonomia-erkidegoek kudeatutako kredituen banaketa-irizpideak onartzen dira, #DigCompEdu hezkuntza-konpetentzia digitala hobetzeko programara bideratuak, 2022, 2023 eta 2024 aurrekontu-ekitaldietan (2024ko ekainaren 30era arte egindako gastuak), Hezkuntza Ministerioko Hezkuntza konferentziaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren "Gaitasun digitalen plan nazionalaren" 19. osagaiaren esparruan.

3.- Helburu hori lortzeko, eta, oro har, mentoretza-jarduerak egiteko aukeratutako irakasleak liberatzeko, 7.812.368 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako



ezarritako aurrekontu-partiden kargura. Gainera, 137.800 euro bideratuko dira, aukeratutako ikastetxe eta ikasturte bakoitzeko 1.300 euroko aparteko igorpen baten bitartez, irakasle mentoreak sortutako joan-etorrien eta mantenuaren gastuak ordaintzeko, izendatzen zaizkion ikastetxeei aholkularitza emateko.

## 2. artikulua.- Onuradunak.

1.- Deialdi honetako zuzkiduren onuradun izan daitezke Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoak, baimena dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa emateko.

2.- Gehienez 53 ikastetxe aukeratu ahal izango dira, eta mentore bat aukeratutako ikastetxe bakoitzeko.

## 3. artikulua.- Betekizunak eta konpromisoak.

### 1.- Ikastetxeak

- 1.1 Ikastetxeak Sare Hezkuntza Gelan programan parte hartu beharko du, eta, gutxienez, klaustroko kide bat proposatu beharko du mentore izateko, haren baimena jaso ondoren, I. eranskinean adierazitako eskaera-ereduarekin bat. Ikastetxeak hiru parte-hartzaile proposatu ahal izango ditu gehienez, lehentasun-ordenaren arabera.
- 1.2 “DigCompEdu Gelan” programan parte hartzeko, klaustroaren eta ikastetxeko OOGren onarpena izan beharko ditu.
- 1.3 Ikastetxeak konpromisoa hartzen du 2021-2022 ikasturtea amaitu aurretik edo 2022-23 ikasturtea hasi aurretik ikastetxeko Digitalizazio Batzordea sortzeko. Batzorde horren burua zuzendaritza-taldea izango da, mentore gisa aukeratutako pertsonarekin koordinatuta, ikastetxeko proiektu digitala diseinatu eta gauzatzeko eta proiektuaren etengabeko jarraipena egiteko.
- 1.4 Ikastetxeak konpromisoa hartzen du 2022-2023 ikasturtean SELFIE tresnan oinarrituta ikastetxearen proiektu digitala egiteko gidan aurreikusitako ebaluazioa eta proiektu digitala egiteko, baldin eta 2021-2022 ikasturtean gauzatu ez badu.
- 1.5 Proiektuan parte hartzen duen ikastetxeak konpromisoa hartzen du 22-23 eta 23-24 ikasturteen artean bere irakasleen DigCompEdu irakaskuntza-gaitasun digitalaren autoebaluazioa egiteko; horretarako, “SELFIEforTEACHERS” autogogoetarako tresna erabili beharko du. Ebaluazio horretan oinarrituta, ikastetxeko Digitalizazio Batzordeak prestakuntza-plan bat proposatuko du irakasleen gaitasun digitala hobetzeko eta gaitasun hori egiaztatzean aurrera egiteko, Hezkuntza Sailak horretarako ezarriko duen prozesuaren bitartez.
- 1.6 Ikastetxeak bere digitalizazio-proiektua sartuko du ikastetxearen hezkuntza-proiektuan 2022-2023 ikasturtean, eta konpromisoa hartzen du bere klaustroaren % 80k parte hartuko duela bere gaitasun digitala egiaztatzen, Hezkuntza Sailak ezarriko dituen bideak baliatuz.
- 1.7 Ikastetxeak konpromisoa hartzen du proiektuan parte hartzea onartzeko. Ildo horretatik, hamar eguneko epean —deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera— ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz hautaketari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.
- 1.8 Ikastetxeak konpromisoa hartzen du Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzeko, onartutako programarekin lotutako aholkularitza, jarraipen, ebaluazio eta kudeaketako zereginetan.
- 1.9 Aukeratutako ikastetxeek konpromisoa hartzen dute euskal hezkuntza-sistemaren mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan sarean parte hartzeko, baldin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza



Berrikuntzaren Zuzendaritzak ebaluazio negatiboa egiten ez badu edo OOGk berak uko egiten ez badio.

1.10 Esleipen-prozeduratik kanpo geratuko dira ordura arte IKTen arloko heldutasun-mailarik egiaztatu ez duten ikastetxeak.

2.- Irakasleak

2.1 “DigCompEdu Gelan” programak bi ikasturte iraungo ditu (2022-2023 eta 2023-2024), eta horietan, mentoretza digitala egiteko aukeratutako ikastetxe eta pertsonak konpromisoa hartzen dute proiektua garatzeko.

2.2. Ikastetxeak proposatutako irakasleak ikastetxe eskatzailearen edo beste batzuen Sare\_Hezkuntza Gela proiektuan parte hartu beharko du.

2.3. Ikastetxeak proposatutako irakasleak ikastetxe horretan esleitutako lanpostua izan beharko du 2022-2023 ikasturte osorako.

#### 4. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

1. Ikastetxeek 2022ko maiatzaren 20ra arteko epea, egun hori barne, izango dute eskaera aurkezteko.

2. Eskaria modu elektronikoan aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, datu guztiak behar den moduan beteta. Eskabide-eredua (I. eranskina) egoitza elektroniko honetan egongo da erabilgarri: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/mentoreak-2022>

3. Ikastetxe interesdunak eskaerarekin batera dokumentu bat aurkeztu beharko du, DigCompEdu Gelan sarearen mentoretza-lanak egiteko proposatzen dituen irakasleen datuen deskribapenarekin, eta horietako bakoitzaren curriculum vitae eta eskaeran adierazitako merezimenduen egiaztagiria erantsi beharko ditu.

4. Ikastetxeek 3 hautagai aurkeztu ahal izango dituzte gehienez mentoretza digitaleko zereginak garatzeko, ezusteko arrazoiengatik izendatutako pertsonak baja hartu behar badu haren lekua betetzen dela bermatzeko. Eskabidean, mentore gisa proposatutako irakaslearen adostasuna erakutsiko da, erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez.

5. Eskabidearekin batera memoria bat aurkeztuko da, ikastetxeak digitalizazioaren ezarpen-prozesuan duen esperientzia eta ibilbidea ziurtatzeko.

6. Ikastetxeko zuzendaritzak eskabidean erantsitako erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez egiaztatuko ditu alderdi hauek eta jarraian adierazitako konpromisoak bere gain hartuko ditu:

- a) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla deialdi honetan parte hartzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.
- b) Jarduera hori egiteko proposatutako irakasleek ezagutzen dutela DigCompEdu Gelan sarean mentore gisa parte hartzeko proposamena, eta horrekin ados daudela.
- c) Eskaera egiten duen ikastetxeko zuzendaritza-organoek programa ezagutzen eta onartzen dutela.
- d) Ikastetxeak bere digitalizazio-proiektua sartuko duela ikastetxearen hezkuntza-proiektuan 2022-2023 ikasturtean, eta bere klaustroak parte hartuko duela irakasleen gaitasun digitalaren maila ebaluatzen, Hezkuntza Sailak horretarako ezarriko duen prozedurarekin bat.
- e) Ikastetxeko zuzendaritza ikastetxeko proiektu digitala ezartzeko eta proiektuaren jarraipena egiteko sortutako batzordearen buru izango dela eta bertan parte hartuko duela.



- f) Proiektuan parte hartzea onartuko duela. Ildo horretatik, ikastetxea onuradun izanez gero, hamar eguneko epean —deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera— berariaz eta idatziz hautaketari uko egiten ez badio, onartutzat joko da.
- g) Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan arituko dela, onartutako programarekin lotutako aholkularitza, jarraipen, ebaluazio eta kudeaketako zereginetan.
- h) Ikastetxeak euskal hezkuntza-sistemaren mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan sarean parte hartuko duela, baldin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak ebaluazio negatiboa egiten ez badu edo OOGk berak uko egiten ez badio.

7. Erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez (II. eranskina), ikastetxearen mentore gisa proposatutako pertsonak betebeharrak hauek egiaztatuko dituzte eta jarraian adierazitako konpromisoak hartuko dituzte:

- a) Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla deialdi honetan parte hartzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.
- b) Programaren barruan Hezkuntza Sailak deitutako prestakuntzan parte hartuko duela eta deitutako bileretara joango dela.
- c) Programan izendatzen zaizkion zereginak beteko dituela.
- d) 2022/2023 aldian 2024ko ekainaren 30era arte (egun hori barne) mentore izateko izendapena onartzen duela, baldin eta Hezkuntza Sailak hala eskatzen badio. Izendapen hori berrikusi egin ahal izango da Sailaren balorazioaren eta beharrezan araberak.
- e) Deialdi honen 6.2 artikuluan adierazitako konpromiso guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duela.

8. Eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, ikastetxeari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan araberako ebazpena eman ondoren.

## 5. artikulua.- Parte-hartzaileen aukeraketa

1.- DigCompEdu Gelan programan mentore gisa parte hartuko duten irakasleen zerrenda zehazteko, betekizunak betetzen dituzten ikastetxeen eskabideak aztertuko dira, betiere adierazitako epean elektronikoki aurkeztu badira, eta lurraldeka banatuko dira, jarraian agertzen den taulan aurreikusitako banaketaren arabera. Eremu horietako bakoitzari mentore-kopuru bat izendatuko zaio, "Mentoreak" zutabean jasotzen den moduan. Lurralde bakoitzean Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak egon beharko dira ordezkatuta. Hautaketa egingo da lurralde bakoitzeko eremu guztiak hurbileko irizpideen eta antzeko ezaugarrien arabera babestuta gera daitezen, hala nola ikastetxeen etapa

Herrialdea	Mentoreak
Araba	9
Bizkaia	27
Gipuzkoa	17
total	53



2.- Hasteko, eta aurreko taulan adierazitako lurralde bakoitzerako, 3.1 artikuluan ikastetxearentzat eta 3.2 artikuluan irakasleentzat ezarritako betekizunak betetzen dituzten ikastetxe eskatzaileak ordenatuko dira, irailaren 11ko 174/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera lortutako heldutasun teknologikoaren mailaren arabera. Dekretu horrek ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen ditu, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen ditu. Lehenengo, maila aurreratua lortu duten ikastetxeak jarriko dira; ondoren, tarteko maila lortu dutenak, eta, azkenik, oinarriko maila lortu dutenak. Lehenengo fase horretan bi etapetako ikastetxeak ordezkaturik daudela ziurtatuko da; horrenbestez, ordenako lehenengo mailan (heldutasun teknologikoko maila aurreratua) bi etapetako ikastetxerik ez badago, hurrengo mailan jarraituko da (heldutasun teknologikoko tarteko maila) edo, beharrezkoa bada, hurrengo mailan (heldutasun teknologikoko oinarriko maila), lehenengo mailan bete gabeko etapako ikastetxe bat hautatzeko. Hautaketa hori egin ondoren oraindik mentore-plazak bete gabe badaude, berriz ere goiko mailara itzuliko da.

3.- Aurreko puntuan gauzatutako ordenaren ondoren aurreikusitako mentore-postuak baino heldutasun teknologikoko maila aurreratua lortu duten ikastetxe eskatzaile gehiago badaude, proposatutako irakasleek proposatutako hautagaitzen egokitasunaren balorazio teknikorako baremoan (III. eranskina) lortutako puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko dira berdindutako ikastetxeak.

4.- Aurreko bi puntuetan deskribatutako prozesua lurralde bakoitzean egingo da, eta horietako bakoitzerako "Mentoreak" zutabean jasotako mentoreen kopuru baliokidea proposatuko da.

## **6. Artikulua.- DigCompEdu Gelan programan parte hartzeko baldintzak**

### **1.- Ikastetxearen aldetik**

1.1. Ikastetxeak prozesu osoan Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearen aholkularitza izango du, eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzan arituko da, proiektuarekin lotutako aholkularitza, jarraipen, ebaluazio eta kudeaketako zereginetan, bai bere ikastetxean, bai mentore-zereginak egiten dituen ikastetxeetan.

1.2. Horretarako, Hezkuntza Sailaren laguntza eta prestakuntza jasoko du. Hautatutako ikastetxeek lehenetsuna izango dute irakasleen gaitasun digitala hobetzearekin lotutako prestakuntza-jardueretan (Hezkuntza Baliabide Irekiak egitea, Etorbizuneko Ikasgelako metodologia aktiboak...).

### **2.- Hautatutako irakasleen aldetik**

2.1. Hautatutako mentoreak bere lan-jardunaldia DigCompEdu Gelan sareko mentoretza-zereginetara bideratuko du soilik. Ikastetxeak liberatutako pertsona baten dedikazioa izango du proiektu digitala egin eta ezartzeko eta irakasleen gaitasun digitala garatzeko. Mentoretza-zereginak gauzatzeaz gain, nagusiki bere ikastetxean, pertsona horrek beste ikastetxe batzuei (9-10) ere lagunduko die, nagusiki geografikoki hurbil daudenei, ikastetxeko proiektu digitala egin eta ezartzeko eta irakasleen gaitasun digitala hobetzeko.

2.2. Hautatutako pertsonak 2022/23 ikasturtetik hasi eta 2023/24 ikasturtea amaitu arte egingo ditu mentoretza-zereginak; betiere, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak aurkako txostena egiten ez badu.





2.3. Mentore digital gisa hautatutako pertsoneri beren erreferentziako zentroaren eremu geografikoaren arabera esleituko zaizkie ikastetxeak. Ikastetxe horietan gutxienez dedikazioaren heren batean (10 ordu) egon direla bermatu beharko dute, ikastetxeak zehazten duen moduan banatuta. Ordu horien banaketa zehazteko, ikastetxeak kontuan hartu beharko du hautatutako pertsonari esleitutako zereginak ez direla inoiz zuzeneko irakaskuntzakoak izango eta deialdi honen xedean aipatutako zereginak egin beharko dituztela. Gainerako denboran, Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearekin koordinatuta ezarritako lan-planari jarraituko zaio.

2.4. Mentore digital gisa hautatutako pertsonak beren lanpostua mantenduko dute beren ikastetxean, eta handik lekualdatuko dira esleitutako ikastetxeetara. Hezkuntza Sailak ordainduko ditu erreferentziako ikastetxeak ordainduko dituen lekualdatzeen gastuak eta dietak, eta deialdi honen bidez emandako funtsen bidez justifikatu beharreko gastuen zenbatekoari egotziko dizkio.

2.5. Aholkulari digitalak bere ikastetxeko zuzendaritzaren mende jarraituko du organikoki, hartara atxikia jarraituko baitu, eta Hezkuntza Sailaren mende funtzionalki. Azken horrek Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearen laguntza eta aholkularitza eskainiko dio.

2.6. Hautatutako irakasleek destinoko ikastetxean ezarritako ordutegia eta egutegia bete beharko dituzte, eta Hezkuntza Saileko irakasleen lan-baldintzei buruz indarrean dagoen araudia aplikatuko zaie.

2.7. Hautatutako irakasleek ezingo dute parte hartu orduak liberatzea behar duten iraupen luzeko euskalduntze-ikastaroetan. Halaber, orduak liberatzea dakarten beste ikastaro batzuetan parte hartzeko, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak berariazko baimena eman beharko du.

## 7. artikulua.- Irakasle mentoreen zereginak

Mentore digital izendatutako pertsonak zeregin hauek egingo ditu:

- Erreferentziako ikastetxean:
  - Batzorde Digitala dinamizatzea.
  - Ikastetxearen eta irakasleen gaitasun digitalaren mailaren diagnostikoa egitea, Hezkuntza Sailak ezartzen dituen tresnen bidez.
  - Ikastetxearen Proiektu Digitalean jasoko den estrategia digitala presta dadila bultzatzea.
  - Ikastetxeko klaustroaren barne-prestakuntza erraztea, irakasleen gaitasun digitala hobetzeko.
  - Egindako lanaren eta proiektuak ikastetxean bertan eta esleitutakoetan sortutako inpaktuaren urteko memoria egitea, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak onartutako ereduaren arabera.
- Mentore den ikastetxetan:
  - Esleitutako ikastetxeetara bisitak egitea.
  - Ikastetxeen gaitasun digitalari eta irakasleen gaitasun digitalaren mailari buruzko diagnostikoa egiten laguntzea, Hezkuntza Sailak ezartzen dituen tresnen bidez.
  - Ikastetxearen Proiektu Digitalaren diseinuan eta estrategia digitalaren ezarpenean aholkuak ematea.
- Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearekin koordinatuta:
  - Mentore digitalentzako prestakuntza-jarduera espezifikoetan parte hartzea.



- Irakasteko eta ikasteko prozesuetan metodologia aldatzea erraztuko duten teknologia, material berrien eta baliabide digitalen erabilera sustatzea ikasgelan.
- Irakasleek gaitasun digitalak eskuratzeko irakasleei eskaintzen zaien prestakuntzaren tutoretza- eta dinamizazio-lanak egitea.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuan, materialak eta hezkuntza-baliabide irekiak egin daitezen eta ikasgelan erabil daitezen sustatzea.
- Lankidetzak- eta kooperazio-sareak sortzea, eta, besteak beste, mentoreen sareko gainerako kideekin koordinatzea.
- Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea proiektuarekin lotutako aholkularitza, jarraipen, ebaluazio eta kudeaketako zereginetan.
- Programaren helburuekin zerikusia duten beste zeregin batzuk.

### 8. artikulua. – Kudeaketa-organoa

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari dagokio zuzkidura ekonomikoak emateko prozedura kudeatzea, bai eta DigCompEdu Gelan programatik eratorritako ekintzak zuzen garatzea ere.

### 9. artikulua.- Hautaketa-batzordea

1.- Batzorde batek egingo du onartutako eskarien aukeraketa. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Irakasleen Etengabeko Ikaskuntzako eta Hobekuntzako Zerbitzuko arduraduna, batzordeburu.
- Berritzegune Nagusiko zuzendaria, edo eskuordetzen duen pertsona.
- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako hiru lurraldeburuak.
- Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldeko kide bat, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak izendatua.
- Irakasleen Etengabeko Ikaskuntzako eta Hobekuntzako Zerbitzuko bi teknikari, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak izendatuak. Horietako batek idazkari-lanak egingo ditu.

2.- Batzorde horrek beharrezkotzat jotzen dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, eskaerak behar bezala ebaluatu ahal izateko. Ebazpena 5. artikuluan adierazitako irizpideen arabera egingo da, ikastetxe eta hautagai bakoitzak eskuratutako puntuazioari dagokionez. Parte-hartzaile bakoitzaren puntuazioa zehazteko, III. eranskinean ezarritako irizpideak aplikatuko dira.

3.- Hautaketa-batzordeak dagokion ebazpen-proposamena igorriko dio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari. Proposamen horretan bi eranskin gehituko dira. Lehenengoan, hautatutako ikastetxeak eta dagokien hurrenkera zerrendatuko dira, eta, bigarrenean, prozesuaren garapenean baja hartzen dutenak ordezkatzeko erreserba-egoeran geratzen diren ikastetxeak, puntuazio-ordenaren arabera zerrendatuta.





## 10. artikulua. - Prozedura ebaztea

1. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak behin-behineko ebazpena emango du, eta bertan agertuko dira:

- Onartutako eskaerak, honako hauek adierazita: ikastetxe eskatzailea, izendatutako laguntza ekonomikoa eta DigCompEdu Gelan programan mentore-plaza bat betetzeko hautatutako ikastetxe bakoitzeko irakasleen zerrenda.

- Erreserba-egoeran dauden eskaeren zerrenda, lehentasun-ordenaren arabera eta honako hauek adierazita: ikastetxearen izena eta DigCompEdu Gelan programan mentore-lanpostua betetzeko proposatutako irakaslea.

- Baztertutako eskaeren zerrenda, arrazoia aipatuz.

2. Ebazpena jakinaraziko zaie ikastetxe eskatzaileei Hezkuntza Sailaren webgunearen bidez eta posta elektronikoz zuzendariari, eta 10 egun naturaleko epea izango dute alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegazioak aplikazio elektroniko berberetik egingo dira.

3. Alegazioak aztertu ondoren, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta ikastetxe eskatzaileei jakinaraziko die aurreko atalean aipatutako bideak erabiliz. Ebazpenak, batetik, hautatutako ikastetxeen zerrenda jasoko du, ordenatuta, DigCompEdu Gelan programan mentore-lanpostu bat betetzeko proposatutako irakaslearen izenarekin batera, eta, bestetik, baztertutako eskaeren zerrenda jasoko du, arrazoia aipatuz. Behin betiko ebazpen berean aipatuko dira deialdiaren betekizunak betetzen dituzten baina erreserban geratzen diren hautagai guztiak, ordenatuta, ezusteko bajaren bat gertatzen bada ere.

4. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da. Epe horretan jakinarazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

## 11. artikulua.- Zuzkidurak ordaintzea

Bi ordainketa-igorpenen bidez ordainduko zaizkie ikastetxe hautatuei zuzkidurak. Lehenengoa 2022-2023 ikasturteko gastuei aurre egiteko laguntza izango da. Behin betiko ebazpena argitaratu ondoren egingo da, eta 2022. urtea amaitu baino lehen. Bigarrena, zenbateko berekoa, 2023-2024 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egingo da; betiere, proiektuak aurrera jarraitzen badu ikastetxean.

## 12. artikulua.- Laguntzak justifikatzea

1. Hautatutako ikastetxeek bi justifikazio-memoria aurkeztuko dituzte. Lehenengoa 2022-2023 ikasturtea amaitutakoan, eta 2023ko ekainaren 30a baino lehen. Bigarrena 2023-2024 ikasturtea amaitutakoan, eta 2024ko ekainaren 30a baino lehen.
2. Justifikazio guztiak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak>)
3. Bi memoriek egindako gastuen zerrenda jaso beharko dute. Ikastetxeak gastuen fakturak, erreziboak eta beste edozein egiaztagiri gordeko du, Administrazioak eskatzen badio ere. Horretarako gaitutako



aplikazioaren bitartez, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak eskatutako dokumentu eta datu guztiak gehitu ahal izango dira.

### 13. artikulua.- Ez-betetzeak

Mentoretza egiteko izendatutako ikastetxe edo pertsonaren batek hartutako konpromisoa eta/edo ezarritako betekizunen bat betetzen ez badu, eta argudiatutako justifikazioa onartzen ez bada, ikastetxe hori programatik kanpo geratuko da.

Hautatutako ikastetxeei programa honetatik baja eman ahal izango zaie, baldin eta deialdi hau sorrarazi zuen jarduera garatzeko esleitutako baliabideak erabiltzen ez badituzte edo deialdi honetan edo emakidaren ebazpenean ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte.

Ikastetxeak hautatzeko eta dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, aldaketa horien berri eman beharko zaie ikastetxeei, eta horrek dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzea ekar dezake.

### 14. artikulua.- Datu pertsonalak

Ebazpen honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren alorrean eskumena duen zuzendaritzak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren «arduradun» gisa. Datu pertsonalen tratamendu horren xedea deialdi hau kudeatzea eta ebaztea izango da; hots, interes publikoan eta parte-hartzeko eskaeran oinarritutako xedea.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuok tratatzeko mugak edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).

Era berean, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

Hezkuntzako sailburuordea

BEGOÑA PEDROSA LOBATO



## I. eranskina

## Eskabidea

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--	--

..... jaunak/andreak, NAN zenbakia  
 ..... duenak,  
 ..... Ikastetxearen  
 zuzendari gisa,

Ikastetxeak heldutasun teknologikoko maila hauek eskuratu ditu

Maila	Zein deialditan eskuratu den
Oinarrizko maila	
Tarteko maila	
Maila aurreratua	

## ADIERAZTEN DU:

Ezagutzen dituela mentoretza digitalerako DigCompEdu Gelan sarerako ikastetxe eta irakasle mentoreak hautatzeko prozedura ezartzen duen deialdiaren baldintzak. Horretarako, bere ikastetxeko irakasle hauek **parte har dezaten proposatzen du:**

Proposatutako irakasleak				Pertsonak ikastetxean duen egoera *1	Proposatutako pertsonak Sare_hezkuntza Gelan proiektuan gauzatu duen zeregina *2
Ordena	NAN	Izena	Abizenak		
1					
2					
3					

\*1 Adierazi ikastetxean behin betiko lanpostua duen, lanpostu hutsa bitarteko eran betetzen duen eta ikastetxean zenbat urte daramatzen.

\*2 Adierazi koordinatzailea, parte-hartzailea... izan den, eta zeregin horretan zenbat urte eman dituen Sare\_hezkuntza Gelan proiektuari dagokionez.

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Jarduera hori egiteko proposatutako irakasleek ezagutzen dutela DigCompEdu Gelan sarean mentore gisa parte hartzeko proposamena, eta horrekin ados daudela.
- Ikastetxeko zuzendaritza-organoez ezagutzen dituztela deialdi honen baldintzak eta klaustroak adierazi duela ados dagoela bertan parte hartzeko.
- Ikastetxeak bere digitalizazio-proiektua sartuko duela ikastetxearen hezkuntza-proiektuan 2022-2023 ikasturtean, eta bere klaustroaren % 80k parte hartuko duela bere gaitasun digitala egiaztatzen, Hezkuntza Sailak ezarriko dituen bideak baliatuz.
- Ikastetxeak konpromisoa hartzen duela 2021-2022 ikasturtea amaitu aurretik edo 2022-23 ikasturtea hasi aurretik sortuko den batzordearen buru izan eta bertan parte hartzeko, ikastetxeko proiektu digitala gidatu eta ezartzeko eta proiektuaren etengabeko jarraipena egiteko.



## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Proiektuan parte hartzea onartuko duela. Ildo horretatik, hamar eguneko epean —deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera— ikastetxe onuradunak berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badiogu, onartutzat joko dela.
- Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan arituko dela, onartutako programarekin lotutako aholkularitza, jarraipen, ebaluazio eta kudeaketako zereginetan.
- Ikastetxeak euskal hezkuntza-sistemaren mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan sarean parte hartuko duela, baldin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak ebaluazio negatiboa egiten ez badu edo OOGk berak uko egiten ez badio.
- Eskabidean adierazitako datuak egiazkoak direla, eta betetzen direla deialdi honetan parte hartzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

Ikastetxe eskatzaileko zuzendariaren sinadura.



## II. ERANSKINA

## Erantzukizunpeko adierazpena eta konpromisoen onarpena

NAN	Izena	Abizenak
IKASTETXEA:		

DigCompEdu Gelan sarerako mentore digitalak hautatzeko deialdian parte hartzea onartzen dut. Eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla adierazten dut, eta, beraz, Hezkuntza Sailaren esku jartzen dut erantsi dudana Curriculum Vitae, bai eta adierazitako merezimenduen ziurtagirien kopia ere.

Halaber, hautatua izan ondoren, DigCompEdu Gelan sarerako mentore digital gisa parte hartzen badut, konpromiso hauek onartuko ditut:

- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak izendatuko dizkidan 9-10 ikastetxeetarako DigCompEdu Gelan sarean mentore-zereginak egitea onartu.
- Nire ikastetxean heren bateko dedikazioa (10 ordu) izango dudala onartu, ikastetxeak zehazten duen moduan banatuta. Gainerako denboran, Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearekin (Digitalde) koordinatuta ezarritako lan-planari jarraitu.
- Euskal hezkuntza-sistemaren mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan sarean parte hartu.
- Programa horretan izendatutako zereginak onartu, jakinarazpena egiten zaidanetik 2023ko abuztuaren 31ra arte, 2024ko abuztuaren 31ra arte luzatzeko aukera izanik.
- Destinoko ikastetxean ezarritako ordutegia eta egutegia bete, bai eta Hezkuntza Sailak ezarritako gainerako arau eta lan-baldintzak ere.
- Orduak liberatzea eskatzen duten iraupen luzeko euskalduntze-ikastaroetan ez parte hartu, ez eta liberatzea dakarten beste ikastaro batzuetan ere, Hezkuntza Sailaren berariazko baimenik gabe.
- Deialdi honen babesean sortutako ikastetxearen batzordean parte hartu.
- DigCompEdu Gelan programaren barruan deitutako bileretan eta prestakuntzan parte hartu.
- Esleitutako ikastetxeen gaikuntza digitalerako ezarriko diren prestakuntza-tutoretzei dagozkien zereginak egitea, bai eta antzeko beste zeregin batzuk ere.

.....(e)n, 2022ko .....ren ...(e)(a)n

Izpta.: .....



## III. eranskina

## Proposatutako hautagaien egokitasunaren balorazio teknikorako baremoa

Aurkeztutako hautagaien egokitasuna	Puntuazio maximoa	Merezimendua egiaztatzeko behar den dokumentazioa
<ul style="list-style-type: none"> <li>Karrerako funtzionarioa, ikastetxean 5 urtetik gorako iraunkortasuna duena: 40 puntu</li> <li>Karrerako funtzionarioa, ikastetxean 2-5 urte arteko iraunkortasuna duena: 30 puntu</li> <li>Karrerako funtzionarioa, ikastetxean 2 urtetik beherako iraunkortasuna duena: 20 puntu</li> <li>Bitarteko irakaslea, titulartasunik gabeko plaza huts bat betetzen duena: 15 puntu</li> <li>Bitarteko irakaslea, ikastetxean 2-5 urte arteko iraunkortasuna duena: 10 puntu</li> <li>Bitarteko irakaslea, ikastetxean 2 urtetik beherako iraunkortasuna duena: 5 puntu</li> <li>Beste egoeraren bat baloratu ahal izango da hautagai nahikorik ez badago: 5-15 puntu artean.</li> </ul>	40 puntu	Zerbitzu-orria
<ul style="list-style-type: none"> <li>Sare Hezkuntza Gelan proiektuan koordinazio-, prestakuntza- eta jarraipen-zereginak egiteko liberatua izatea 2-5 urtez: 30 puntu</li> <li>Sare Hezkuntza Gelan proiektuan koordinazio-, prestakuntza- eta jarraipen-zereginak egiteko liberatua izatea 2 urtez baino gutxiagoz: 20 puntu</li> <li>Beste inguruabar batzuk baloratu ahal izango dira</li> </ul>	30 puntu	Ikastetxeko zuzendaritzak sinatutako agiria, egindako lanak egiaztatzen dituen, edo lan horien ziurtagiriak.
<p>Digitalizazioan oinarritutako metodologia aktiboetan egiaztatutako prestakuntza (Prest Gara, Sare_ hezkuntza Gelan, Hezkuntza Sailak homologatutako prestakuntza, INTEF, unibertsitate batek onartutako prestakuntza):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntzako baliabide digitalei buruzko masterra: 15</li> <li>100 ordu baino gehiago: 15</li> <li>50 eta 100 ordu bitartekoa: 10</li> <li>30 eta 50 ordu bitartekoa: 5</li> </ul>	15 puntu	Berrikuntza-Prest Gara ikastaroen historiaren ziurtagiri orokorra
<p>Hezkuntzako baliabide digitalei buruzko prestatzaile edo tutore gisa parte hartu izana (klaustroaren prestakuntza, INTEF, unibertsitate-masterra):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntzako baliabide digitalei buruzko masterra: 15 puntu</li> <li>100 ordu baino gehiago: 15 puntu</li> <li>50 eta 100 ordu bitartekoa: 10 puntu</li> <li>30 eta 50 ordu bitartekoa: 5 puntu</li> </ul>	15 puntu	Ziurtagirien kopia
<p>Hezkuntzako baliabide digitalei buruzko ikastaro eta prestakuntza-ekintzak sortzea eta diseinatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>100 ordu baino gehiago: 15 puntu</li> <li>50 eta 100 ordu bitartekoa: 10 puntu</li> <li>30 eta 50 ordu bitartekoa: 5 puntu</li> </ul>	10 puntu	Materialak edo ziurtagiriak aurkeztea
<p>Hezkuntza-baliabide digitalak sortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Diseinu Unibertsalean oinarritutako hezkuntza-baliabide irekien (HBI) bitartez: 10 puntu</li> <li>Hezkuntza-baliabide irekien bitartez: 5 puntu</li> <li>Ikastaroak edo baliabideak sortzea: 3 puntu</li> </ul>	10 puntu	Materialak edo ziurtagiriak aurkeztea
Beste batzuk, hala nola sari izendunak hezkuntza-proiektu berritzaileetan edo Europako hezkuntza-proiektu baten enbaxadore izatea.	5 puntu	Dagokion ziurtagiria
<b>Gutziko puntuazioa</b>	<b>100 puntu</b>	